



Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gipuzkoa Donostia Kutzaren eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen arteko hitzarmena euskararen erabilera areagotzeko

Donostian, 2007ko apirilaren 24an

BILDURIK

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duela.

Carlos Etxepare Zugasti jauna, Gipuzkoa Donostia Kutzaren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duela.

Jokin Bildarratz Sorron jauna, Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duela.

Alderdi guztiek hitzarmena egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE

Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburuetako bat dela euskararen erabilera handitzea, bai Gipuzkoako herri administrazioan, bai Gipuzkoako gizartean oro har. Horretarako, elkarlanean ari da lurraldean diharduten herri aginte eta eragileekin. Xede horri begira Euskal Autonomia Erkidegoko herri agintek hitzartutako eta landutako tresnez baliatzen da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) esparruaren barruan. Arlo sozio-ekonomikoari begira, bereziki aipatzekoak dira LanHitz ekimena eta Erreferentzia Marko Estandarra (EME).

Gipuzkoa Donostia Kutxak bere aldetik, bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzea duela helburu, kalitatearen osagai funtsezkoa delarik bezeroak harreman-hizkuntza aukeratu ahal izatea; helburu hori erdieste bidean, lagungarri dela Gipuzkoako bi hizkuntza ofizialen arteko desoreka gaintzea, hizkuntza ahulenaren –euskararen- erabilera bultzatuz; eta ikuspegi honekin ari dela Gipuzkoa Donostia Kutxa euskararen presentzia ugaltzen, indartzen eta



sendotzen, dagozkion esparru guztietan. Horri begira, bereziki azpimarratzekoa da Gipuzkoa Donostia Kutxak, Bilbao Bizkaia Kutxak eta Caja Vital Kutxak berriki Eusko Jaurlaritzarekin sinatu duten hitzarmena, LanHitz ekimenaren baitan.

Euskararen berreskurapenak duen garrantzia aintzat hartuta, EUDELEk konpromezu irmoa hartu du euskararen normalizazioan lan egiteko. Horretarako Udale, Udal arteko Euskara Sarea sortu berri du. Bere zereginen artean elkarlana eta koordinazioa bultzatzeaz gain, aholkularitza, zerbitzu teknikoa eta udalen zein udalez gaindiko erakundeen arteko zubi-lana daude. Horretarako, udal, mankomunitate eta euskararen normalizazioan lanean diharduten eragile eta erakundeen arteko zubiak egin nahi ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoa Donostia Kutxak eta EUDELEk, hitzarmen honen bidez, orain arteko lankidetzari indartu eta sakondu egin nahi dute euskararen erabilera zabaltzeko eta indartzeko.

Erakunde horiek aitortu egin nahi dute Gipuzkoako Foru Aldundiko, Gipuzkoa Donostia Kutxako eta Gipuzkoako udaletako enplegatuek euskara erabiltzeko adierazi duten borondateak eta konpromisoak egin dutela bideragarri hitzarmen hau gauzatzea.

Horregatik, aipatutako erakundeek euskara zabaltzeko eta sendotzeko asmoz, honakoa

HITZARTZEN DUTE

1.- Elkarren arteko harremanetan, ahozkoetan zein idatzizkoetan, euskararen erabilera eta euskarazko produkzioa bultzatuko dutela arian-arian ahal den guztietan, eta beharrezko diren baliabideak jarriko dituztela elkarren artean idatziz eta ahoz zein harreman dituzten identifikatzeko eta, euskara sustatzeko aldera, neurri zehatzak proposatzeko.

2.- Euskararen gizarte erabilera bultzatze aldera, ekimen bateragarriak aztertuko dituztela, elkarrekin edo modu sinkronizatuan garatzeko. Lehen urrats gisa, arreta berezia jarriko diote urteroko errenta kanpainan euskararen presentzia areagotzeko lankidetzari.

3.- Norabide berean, hitzarmen honen eranskin gisa doan udalentsako hitzarmen markoa adosten dute. Nork bere aldetik, bakoitzaren eskumenen arabera, agiri horri behar den hedapena emateko konpromisoa hartzen du. Eta elkarrekin jakinaraziko diote Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari hitzarmen markoaren berri, herriz herri gauzatzerakoan haren babesa eta laguntasuna izan dezan; bereziki eskatuko diote HPSri emaitzen neurketarako metodologia eta tresna zehatzak presta ditzala.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundia hitzarmen honen edukia eta bere garapenaren berri langileei eta hiritarrei adierazteaz arduratuko da. Era berean, Gipuzkoa Donostia Kutxa hitzarmen honen edukia eta bere garapenaren berri langileei eta bezeroei adierazteaz arduratuko da. Azkenik, EUDELEk hitzarmen honen berri zabaltzeko du udalen artean.



5.- Hitzarmenaren jarraipen eta zaintzarako batzorde bat osatuko da. Batzorde horretan, erakunde bakoitzetik ordezkari batek (gutxienez) parte hartuko du eta urtean bitan elkartuko da.

6.- Hitzarmen honen iraunaldia bost urtekoa da; epe hori beste bost urtez luzatuko da aldeetakoren batek, edo hirurek, idatziz bertan behera uzteko borondatea azaltzen ez badute, gutxienez ere iraunaldia amaitu baino hilabete lehenago.

Eta ados dauden seinale gisa, agiri hau sinatzen dute, orriz orri izenpetuta eta lau aletan, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa Donostia Kutxa

Euskal Udalen Elkarte EUEDEL

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri

Carlos Etxepare Zugasti

Jokin Bildarratz Sorron